

GAIXOTASUN MENTALA DUEN PERTSONAREN ZAINZAILEAK ALDI BATERAKO ATSEDENA HARTZEKO EGUNEKO ARRETA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Zaintzailea > Zaintzaileen atsedena errazteko zerbitzuak

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Desgaitasunen bat duten pertsonen **zaintzaile nagusia eta senideak.**

Kostua

Koordainketa duen zerbitzua, egoera ekonomikoaren eta erabilera-modalitatearen arabera.

Baldintzak

Zaintzaile nagusia izatea.

Atsedeen hartzeko beharra.

Errolda (12 hilabete).

Zertan datza?

Eguneko zentro edo zerbitzuetara aldi baterako sartzea buruko gaixotasuna duten pertsonak, normalean familiako zaintzaileek zaintzen dituztenak etxean ([2.5 fitxa](#)). Zaintzailea bere eginkizuna aldi baterako betetzea eragozten dion egoera batean dagoenean aktibatzen da zerbitzua (bajan dago, atsedeen hartu behar du, oportetara joan behar du...).

Norentzat?

Buru gaixotasuna duen pertsonaren **zaintzaile nagusia eta ez profesionala**.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordinaketaren menpe dagoen zerbitzua da, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere egoera ekonomikoaren eta zerbitzua erabiltzeko modalitatearen arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Gaixotasun mentala duen pertsona eta zaintzailea etxebizitza berean eta dagokion lurralde historikoko **udalerrri batean erroldatuta egotea**.

Etxebizitza berean erroldatuta egotea 12 hilabetez.

Dagokion eguneko **zerbitzura sartzeko baldintzak betetzea**.

Non eska dezaket zerbitzua?

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan**.

Informazio gehiago:

- [Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroa Araban](#)
- [Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroa Bizkaian](#)
- [Gaixotasun mentala duten pertsonentzako eguneko zentroa Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)